

# ZINE FORUMA – V.O.S

## SANSHO INTENDENTEA (Kenji Mizoguchi)

**Urriak 14, osteguna, 19:00**

**123 min**

XII. mendeko Heian Garaiaren amaieran, herri bateko gobernadorea erbestera bidali zuten. Bere familiak berarekin joan nahi duen arren, inork ezingo dio lagundu, bere burua apaiztat duen atso batek engainaturik, esklabo gisa salduak baitira, alde batetik ama eta bestetik seme-alabak.

Mizoguchik eta Kazuo Miyagawa bere ohiko argazki zuzendariak (1908-1999) edertasun, sakontasun eta lasaitasun oso zail baten irudiak sortu dituzte. Hau bezalako istorio bat kontatzeko modu bakarra den zuri-beltz zoragarri batean, plano ahaztezinak lortzen dituzte: familia babesten den gau-baso fantasmagorikoa, Zushiel esklaboak ihes egiten duen mendi txundigarriak, Sanshoko lurak haranaren beste aldetik erretzen ikustea... Merituaren zati handi bat pelikula osorako aukeratutako inguru natural ederrek dute, noski. Askotan hain bukolikoak, hain idilikoak, kontatzen diguten istorio beldurgarriak are min handiagoa ematen du, ezin baitugu sinetsi itxuraz hain ederra den mundu batean hainbeste zoritxar eta bidegabekeria gerta dakizkiekeenik bertan bizi eta sufritzen duten gizakiei. Etsipenari buruzko istorio bat da, non errukitsu prestu batek bere familia pribilegiatua pobreziarik izugarrienera, esklabutzara, prostituziora, gorrotora eramaten duen. Enperadoreari aurre egiteko premia estuan, esklabotza debekatzeko erabakia hartzen du, eta borroka horretan dena galtzen du.

Hau da, gizon on baten altruismo- eta onginali-ekintza batek muturreko sufrimendua eragiten die emazteari eta seme-alabei, gizonen gutziak eta ziztrinkeriak banandu eta harrapatuko baitituzte. Mizoguchi bezalako artista errukior eta bihotz handiko batek bakarrik konta zezakeen kontakizun tragiko eta hunkigarri hori, eta hain erraz, hain zuzen eta hain zirrargarriro kontatu. Oso ondo ezagutzen dituen gaiez hitz egiten duelako, bere bizitzaren parte baitira. Eta begira oroitzapen beldurgarri horiei, haurtzaroko irudi patetiko horiei, ez gorrotoz edo haserrez, baizik eta ulermenez, errukiz, soseguz. Giza izaera miserablea onartuz, eta izaera horri duintasuna eta argia emanez.

Bada zerbait guztiz misteriotsua Mizoguchiren eszenaratzean, hain muturreko tentsio psikiko eta emozionala deitzeko modu simple eta apala. Irudi berak musika dira, musikaz estali beharrik gabe. Bizitzaren eta askatasunaren aldeko kantu hipnotiko bihurtu dira, hori praktikatzan duten pertsonen bizitza eta iragana biltzen dituen gorrotoaren aurka. Mizoguchik, bere bizitzaren hondarrean, bazekien hori, eta zinema gai dela hain gai garrantzitsuak kontatzeko, agian horretarako sortu zelako.

**Veneziako Jaialdia 1954 – Zuzendari Onenaren Zilarrezko Lehoa**

[www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)



# ZINE FORUMA – V.O.S

## EL INTENDENTE SANSHO (Kenji Mizoguchi)

**14 de octubre, jueves, 19:00**

**123 min**

A finales de la Época Heian en el siglo XII, el gobernador de un pueblo es enviado al exilio. A pesar de que su familia quiere ir con él, ninguno podrá acompañarle, pues, engañados por una vieja que se hace pasar por sacerdotisa, son vendidos como esclavos por separado: la madre por un lado y los hijos por otro.

Mizoguchi y su habitual director de fotografía Kazuo Miyagawa (1908-1999) crean algunas imágenes de una belleza, una profundidad y una serenidad muy difíciles de lograr. En un sensacional blanco y negro, que es la única forma de contar una historia como ésta, obtenemos planos inolvidables: el fantasmagórico bosque nocturno en el que se refugia la familia, las impresionantes montañas por las que huye el esclavo Zushiô, la visión de las tierras de Sansho ardiendo desde el otro lado de valle... Buena parte del mérito la tienen, claro, los bellísimos parajes naturales escogidos para toda la película. A menudo tan bucólicos, tan idílicos, que la terrible historia que nos narran duele todavía más, porque no nos podemos creer que en un mundo aparentemente tan hermoso puedan ocurrirles tantas desgracias e injusticias a los seres humanos que en ellos viven y sufren. Una historia sobre la desesperación, en la que un noble compasivo arrastra a su privilegiada familia a la pobreza más terrible, a la esclavitud, a la prostitución, al odio. En su necesidad íntima de enfrentarse al emperador, toma la decisión de prohibir la esclavitud, y en esa lucha lo pierde todo.

Es decir, que un acto de altruismo y de benevolencia absoluta por parte de un hombre bueno, desemboca en un sufrimiento extremo para su mujer y sus hijos, que se verán separados y atrapados por la codicia y la mezquindad de los hombres. Sólo un artista compasivo y de gran corazón como Mizoguchi podía contar este trágico y conmovedor relato, y contarlo de una forma tan sencilla, tan directa y tan emocionante. Porque habla de cuestiones que conoce muy bien, ya que son parte de su propia vida. Y mira a esos pavorosos recuerdos, a esas patéticas figuras de su infancia, no con rencor o con ira, sino con comprensión, con clemencia, con sosiego. Asumiendo la miserable condición humana, y otorgando dignidad y luz a esa condición.

Hay algo profundamente misterioso en la puesta en escena de Mizoguchi, la manera sencilla y humilde con la que convoca una tensión psíquica y emocional tan extremas. Las mismas imágenes son música, sin necesidad de revestirlas con música. Se erigen en un hipnótico canto a la vida y a la libertad en oposición al odio que emponzoña la vida y el pasado de las personas que lo practican. Mizoguchi, en el ocaso de su vida, sabía esto, y que el cine es capaz de contar temas tan importantes porque quizá fue creado para ello.

***León de Plata al Mejor Director-Festival de Venecia 1954***

